# Del GATT

## 1947

### ¿Qué busca?

Liberalizar el comercio de mercancías.

### ¿Qué hace?

- Reduce los aranceles de los productos del Norte, lo que les facilita el acceso a los mercados.
- No liberaliza los productos agrícolas y textiles que produce el Sur, lo cual dificulta su acceso a los mercados del Norte.

### ¿Cómo funciona?

A través de rondas de negociaciones.
Se han celebrado 8 rondas, de la última de las cuales surge la OMC.

## 1986-1994

### Ronda Uruguay (8ª del GATT)

- Finaliza, con cuatro años de retraso sobre el tiempo previsto, con el *Acuerdo de Marrakech.*
- El tema principal fue la agricultura. El Norte prometió liberalizar los productos agrícolas y textiles del Sur y, a cambio, el Sur aceptó que el comercio de servicios y los derechos de propiedad intelectual fueran regidos por la OMC.

# a la OMC

## 1995

GATT = mercancías
AGCS = servicios
} LIBERALIZAR

ADPIC = propiedad intelectual } PROTEGER




La Organización Mundial de Comercio, OMC, es el organismo que establece las normas que rigen el comercio internacional de mercancías y servicios, así como también regula los derechos de propiedad intelectual. Desde 1995 sustituye al GATT (Acuerdo General sobre Aranceles Aduaneros y Comercio), que regulaba el comercio de mercancías desde 1947. La OMC administra tres acuerdos: el GATT, el AGCS (Acuerdo General sobre el Comercio de Servicios)y el ADPIC (Acuerdo sobre Aspectos de los Derechos de la Propiedad Intelectual relacionados con el Comercio).

Su órgano de solución de diferencias (OSD) tiene la capacidad de sancionar a los estados por el incumplimiento de sus reglas, lo que le otorga un poder que no tiene ninguna otra institución de ámbito mundial.

La OMC es un instrumento privilegiado de la globalización neoliberal que prepara el terreno de juego adecuado para las empresas transnacionales. Lo convierte todo en mercancía, en objeto de negocio.

# La Organización Mundial de Comercio

Hasta el momento, ha celebrado seis Conferencias Ministeriales y desde 2002 se está desarrollando la Ronda de Doha. Aunque su final estaba previsto para 2005, la Ronda aún no ha terminado. La Conferencia Ministerial es el órgano máximo de decisión de la OMC. Se reúne al menos una vez cada dos años y congrega a representantes ministeriales de todos los países miembros y al Comisario/a de Comercio de la UE. A diferencia de las cumbres ministeriales, que duran unos días, las Rondas de negociación se prolongan durante varios años.

Dada su capacidad de sancionar, los países del Norte tratan de incluir nuevos temas en la OMC, lo que aún no han logrado debido a la oposición de los países del Sur. A continuación, se recogen cronológicamente las Conferencias Ministeriales, indicando los nuevos temas incluidos por el Norte así como sus principales resultados.




## 1996 Singapur

Se incluyen los *temas de Singapur en la agenda de la OMC:*

- Inversión.
- Política de competencia.
- Compras sector público.
- Facilitar el comercio.

## 1998 Ginebra

Se introduce un nuevo tema, el comercio electrónico, que queda exonerado de aranceles.

## 1999 Seattle

- Fracaso total de la Conferencia. Ante la oposición del Sur, el Norte no logra lanzar la *Ronda del Milenio*.
- Fuertes movilizaciones contra la OMC promovidas por organizaciones sociales y sindicales. Se visualiza por primera vez el movimiento "antiglobalización", que adopta por lema "el mundo no es una mercancía".

## 2001-2002 Doha

- Pocas semanas después del 11-S, el Norte consigue lanzar la Ronda de Doha, inicialmente llamada Ronda de desarrollo. Este nombre es rechazado por el Sur, ya que el verdadero objetivo es ampliar la liberalización de los servicios y la agricultura.
- Acuerdo sobre el acceso del Sur a los medicamentos.

## 2003 Cancún

- Nuevo fracaso, no hubo ningún acuerdo gracias a la actuación coordinada de varios grupos de países del Sur, que defendieron conjuntamente sus intereses.
- Importante movilización de la sociedad civil. Muchas organizaciones intentan hacer "descarrillar" a la OMC.

## 2005 Hong Kong

- La OMC no "descarrila". Debido a concesiones del Norte, se rompe la unidad del Sur lograda en Cancún.
- El Norte consigue continuar con las negociaciones de la Ronda de Doha, en principio hasta 2007. Se establece 2013 como plazo límite para las subvenciones a exportaciones agrícolas.

## ¿2007?

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA




# Mundua ez da salgaia

## GATTetik

### 1947

**Zer nahi du?**

Salgaien merkataritza liberalizatu.

**Zer egiten du?**

Iparraldeko produktuen arantzelak murriztu. Horri esker, merkatuetara sartzea errazten die.

Ez ditu Hegoaldeak ekoitzitako nekazaritza-produktuak eta ehungintzakoak liberalizatzen, eta, ondorioz, produktuok Iparraldeko merkatuetan sartzea zailtzen du.

**Nola funtzionatzen du?**

Negoziazio erronden bidez. Zortzi erronda egin dira eta, azkenekotik, MMA sortu zen.

### 1986-1994

**Uruguaiko erronda** (GATTen 8.a)

Aurreikusitako epea kontuan hartuta, lau urteko atzerapenarekin amaitu zen, *Marrakecheko Itunarekin*.

Gai nagusia nekazaritza izan zen. Iparraldeak Hegoaldeko nekazaritza-produktuak eta ehungintzakoak liberalizatuko zituela agindu zuen eta, ordean, Hegoaldeak zerbitzuen merkataritza eta jabetza intelektualeko eskubideak MMAk zuzentzea onartu zuen.

## MMAra

### 1995

GATT = salgaiak
AGCS = zerbitzuak
} LIBERALIZATU

TRIPS = jabetza intelektuala } BABESTU

Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) ezartzen ditu salgaien eta zerbitzuen nazioarteko merkataritzarako arauak, eta jabetza intelektualeko eskubideak ere arautzen ditu. 1995az geroztik GATT (Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra) ordezten du, zeinak 1947tik arautzen baitzuen salgaien merkataritza. MMAk hiru akordio administratzen ditu: GATT, GATS (Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusia)eta TRIPS (Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruzko Alderdiak).

Desberdintasunak konpontzeko organoak (DKO) beraren arauak betetzen ez dituzten estatuak zigortzeko gaitasuna dauka, eta horrek, beraz, munduko beste erakunde batek ere ez duen moduko boterea ematen dio.

MMA globalizazio neoliberalaren tresna pribilegiatua da, eta joko eremu egokia prestatzen die enpresa transnazionalei. Dena salgai bihurtzen du, dena negozio-gai.

## Munduko Merkataritza Antolakundea

Orain arte sei Konferentzia Ministerial egin ditu eta, 2002. urtetik hona, Dohako Erronda ari da garatzen. 2005ean amaituko zela aurreikusten zen arren, Erronda ez da amaitu oraindik. Konferentzia Ministeriala MMAren erabaki organo gorena da. Bi urterik behin batzartzen da gutxienez, eta estatu kide guztietako ordezkari ministerialak eta EBko Merkataritza komisarioa batzen ditu. Goi-bilera ministerialek ez bezala, zeintzuek egun gutxi irauten duten, negoziazio errondak urte batzuetako iraupena izaten dute.

Zigortzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, Iparraldeko herrialdeek MMAn gai berriak sartu nahi dituzte, baina oraindik ez dute lortu, Hegoaldeko herrialdeak kontra daude eta. Jarraian konferentzia ministerialak jaso dira, kronologikoki, eta Iparraldeak bakoitzean sartutako gai berriak eta emaitzak ere jaso dira.




### 1996 Singapur

Singapurreko gaiak sartzen dira MMAren agendan:

- Inbertsioa.
- Lehiakortasunerako politika.
- Sektore publikoa erostea.
- Merkataritza erraztea.

### 1998 Ginebra

Arantzeletatik salbuetsita gelditu zen beste gai bat sartu zen, merkataritza elektronikoa.

### 1999 Seattle

- Konferentziak porrot egin zuen nabarmen. Hegoaldearen oposizioaren eraginez, Iparraldeak ezin izan zuen lortu Milurtekoko Erronda bultzatzea.
- MMAren kontrako mobilizazio gogorrak, gizarte erakundeek eta sindikatuek bultzatutakoak. “Globalizazioaren aurkako” mugimenduaren lehenengo agerraldia izan zen; eta mugimendu hark “mundua ez da salgaia” leloa hartu zuen.

### 2001-2002 Doha

- Irailaren 11tik aste gutxira, Iparraldeak Dohako erronda bultzatzea lortu zuen, zeinak, hasiera batean, garapenerako Erronda izena hartu baitzuen. Hegoaldeak ez zuen izen hori onartu, izan ere, helburua zerbitzuen eta nekazaritzaren liberalizazioa handitzea zen.
- Hegoaldeak medikamentuak lortzeari buruzko akordioa.

### 2003 Cancún

- Porrota berriz ere; ez zen akordiorik lortu Hegoaldeko herrialdeetako talde batzuen jarduera koordinatuari esker. Talde horiek elkarrekin defendatu zituzten beren interesak.
- Gizarte zibila izugarri mobilizatu zen. Erakunde asko MMA “errailetatik ateratzen” saiatu ziren.

### 2005 Hong Kong

- MMA ez zen “errailetatik atera”. Iparraldeak egindako kontzesioen ondorioz, Hegoaldeak Cancunen lortu zuen batasuna hautsi egin zen.
- Iparraldeak Dohako Errondako negoziazioekin jarraitzea lortu zuen, printzipioz 2007. urtera arte. 2013. urtea ezarri zen nekazaritza-esportazioetarako diru-laguntzen gehienezko muga bezala.

### 2007?

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTOA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA